

Eider Mendozak eta Xabier Urdangarinek lan-topaketa izan dute

Kronika - Erredakzioa 2025ko urt. 16a, 00:00

Entzun ▶



[ASTIGARRAGA](#)



Aldundiko Kontseilua Astigarragan egin aurretik elkartu dira eta herriko proiektuak izan dituzte hizpide.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseilua Astigarragan elkartu zen asteartean, txotx denboraldia hasi baino egun bat lehenago, legegintzaldi honetan egiten ari diren saio ibiltarien esparruan. Kontseilua egin aurretik, Eider Mendozak eta Xabier Urdangarin alkateak lan-bilera bat egin zuten, eta bertan aztertu zituzten Astigarragako Udalak mahai gainean dituen proiektu, behar eta erronka nagusiak, hala nola mugikortasuna hobetzea, etxebizitzarako sarbidea, kirol-instalazioak eta udalerriko adinekoen arretarako eta zainketarako baliabideak indartzea.

Bestalde, komunikabideei egindako adierazpenetan, Xabier Urdangarin Astigarragako alkateak eskertu egin zion diputatu nagusiari eta Diputatuen Kontseiluari Astigarragara bertaratzea, «gure herriaren nondik norakoak bertatik bertara ezagutzeko». Izan zuten bileran hainbat gai mahai gainean jarri zituela adierazi zuen, «astigartarrentzat garrantzitsuak direnak. Hala nola: garraio publikoaren arazoa eta autobus zerbitzua indartzeko premia (maiztasuna haunditu eta ospitaleetara/unibertsitateetara zerbitzua); hazkunde haundi eta azkarra duten udalerrri txikien finantzaketa hobetzeko eta doitzeko beharra, hazkunde horri aurre egiteko ekipamendu publikoak azkartzeko; bizikleta zerbitzu publikoak eta bidegorri-sarea hobetzeko apustua; eguneko zentro berriaren proiektua, besteak beste».

Aldundiko Kontseilua Astigarragako Sagardoetxean elkartu zen

Eider Mendoza Gipuzkoako diputatu nagusiak herriko proiektuak eta estrategiak ezagutzeko topaketa baloratu zuen, eta udal-ordezkarien kezkak eta iradokizunak jaso zituen: «Bilera honek argi erakusten du erakundeek elkarrekin eta lerrokatuta lan egiten dutenean, eraginkortasunez ekin diezaiekegula udalerrriaren erronkei, gure komunitateari zuzenean mesede egiten dioten eta haren garapena indartzen duten neurriak eta proiektuak bultzatuz».

Aldundiaren Kontseilua Astigarragan elkartzearen arrazoia izan zen, Gipuzkoako udalerrrien beharrak, erronkak eta proiektuak hurbiletik ezagutzea, horiekiko lankidetzat indartuz eta jarduera instituzionala herritarrengana hurbilduz. Oraingo honetan, sagardotegien 2025eko denboraldiaren hasieran, Gipuzkoako diputatu nagusia, Eider Mendoza, gainontzeko foru diputatuekin batera, bileraren buru izan zen Astigarragako Sagardoetxean hainbat neurri eta erabaki onartzeko.

Kontseilu ibiltariaren ondoren, foru diputatuek Sagardoetxea ezagutu ahal izan zuten.

[Gizartea Astigarraga](#)

Kronika egunero, euskaraz eta doan jasotzen segi ahal izateko, Kronikakide gehiago behar dira, eta zer esanik ez, proiektu komunikatibo sendo eta profesional bat garatu nahi badugu.

Egin zaitez KronikaKide!

Erantzun



Ikusienak



Oiarzabal eta Berrondoren ereserkiak estreinatu dituzte

Kronika - Erredakzioa urt 22, 00:00

Hernani



2025erako Oporrak Bakean kanpaina aurkeztu berri dute Donostian

Kronika - Erredakzioa urt 22, 00:00

Hernani



Xabat Pagola nagusitu zen Tabernetakoan, buruz burukoan Ahetzerekin kantatuta

Kronika - Erredakzioa urt 21

Hernani



Santa Agedako entsaioak etzi hasiko dira

Kronika - Erredakzioa urt 22, 00:00

Ereñotzu



Joanes Larretxea zoriontzeko argazkia, bihar

Kronika - Erredakzioa urt 23, 00:00

Hernani



Asfaltatze lanak, gaur Zinkoenean eta Agustindarren plazan

Kronika - Erredakzioa urt 22, 00:00

Hernani

Kronika.eus

Dobera Euskara Elkartea

Larramendi kalea 11, Hernani

Tel.: 943 33 08 99 · 688 660 714 · kronika[ABILDUA]kronika.eus



Codesyntaxek garatua

HONI BURUZ

LEGE OHARRA

PUBLIZITATEA

ARAUAK

HARREMANETARAKO

RSS

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hernaniko Udala

Astigarragako Udala



Gertuko informazioa, euskaraz

AIARALDEA

AIKOR

AIURRI

ALEA

AMEZTI

ANBOTO

ANTXETA IRRATIA

ATARIA

AZPEITIA GUKA

AZKOITIA GUKA

BARREN

BEGITU

BERRIKETAN

DROGETEN ITTURRI

ERRAN

EUSKALERRIA IRRATIA

GEURIA

GOIENA

GOIERRI TELEBISTA

